DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Idazkaritza nagusia
Secretaría general

Ijentea, 1 | Tel. 010 - 943481012 | www.donostia.eus
20003 Donostia / San Sebastián

**Don IÑAKI TXINTXURRETA PERDIGUERO Jn.**

**Donostiako Udaleko Bitarteko Idazkari Nagusia naizen honek**
**Secretario General en funciones del Ayuntamiento de San Sebastián**

**Neuk ziurtatua:**
**Certifico:**

Donostiako Udaleko Bozeramaileen Batzordeak, 2021eko maiatzaren 25ean egindako ohiko bilkuran, erakunde-adierazpen hau onartu zuela, aho batez:

Que la Junta de Portavoces del Excmo. Ayuntamiento de San Sebastián, en sesión ordinaria celebrada el 25 de mayo de 2021, aprobó, por unanimidad, la siguiente Declaración Institucional:

*“1931ko maiatzean, Espainiako II. Errepublika aldarrikatu ondoren, Kantauriko itsasertzeko portu nagusietan greba-jardunaldi batzuk egin ziren itsasoko langileen lan-aldarrikapenetarako irtenbide bat eskatzeko: soldata hobeak Sole Handiko marinelentzat, itsasoan lan egiten zituzten igandeen pareko atsedena eta 15 lanordutik goragokoa ez zen lanaldia.*

*“En mayo de 1931, después de la proclamación de la II República Española, en los principales puertos de la cornisa cantábrica se vivía una serie de jornadas de huelga para pedir una solución a las reivindicaciones laborales de los trabajadores del mar: mejores sueldos para los marineros del Gran Sol, descanso equivalente a los domingos que se faenaban en el mar, y una jornada que no fuese superior a las 15 horas de trabajo.*

*Maiatzaren 26an, San Pedro eta Trintxerpe inguruan bildutako jendea manifestazioan atera zen Donostiarantz, baina probintziako gobernadoreak agindutako ordena-indarren hedapena egiaztatzean, ez zuten aurrera jarraitu. Gau horretan bertan, “Avance Marino” sindikatuko hainbat zuzendari atxilotu zituzten, bai eta Langile Elkarteen Federazioko lehendakaria ere.*

*El 26 de mayo la gente que se había congregado en las inmediaciones de San Pedro y Trintxerpe salió en manifestación hacia San Sebastián, pero al comprobar el despliegue de las fuerzas del orden ordenado por el Gobernador de la Provincia, desistieron de continuar con la marcha. Esa misma noche fueron detenidos varios directivos del sindicato “Avance Marino”, así como el presidente de la Federación de Sociedades Obreras.*

*Ondoren, maiatzaren 27an, goizeko hamarrak aldera, 2.000 pertsona baino gehiago manifestazioan abiatu ziren Trintxerpetik Donostiara, patronalarekiko adostasunik eza salatzeko, eta donostiarrei jakinarazteko Pasaiako arrantzale eta marinelak sektoreko erreklamazioen alde borrokan ari zirela. Manifestazioko pankartetan, “Askatasuna gure kideentzat” eta “Ogia nahi dugu gure seme-alabentzat” irakur zitekeen.*

*Así el 27 de mayo, hacia las diez de la mañana, partió de Trintxerpe hacia San Sebastián una manifestación de más de 2.000 personas, con la que se quería denunciar la falta de acuerdo con la patronal y para que la población donostiarra conociera la lucha que los pescadores y marineros de Pasaia estaban desarrollando en favor de las reclamaciones del sector. En las pancartas de la manifestación se podía leer “Libertad para nuestros compañeros” y “Queremos pan*

10740n XVII

*para nuestro hijos".*

*Mirakruzgañera iristean, Armadako destakamentu batekin topo egin zuten; manifestariek jakinarazi zieten gobernadoreari atxilotutako kideen askatasuna eskatzera zihoazela, bakez. Armadak pasatzen utzi zien, baina ohartarazi zien gero Guardia Zibila zegoela. Ategorrietako erlojuaren parera iritsita, Guardia Zibila, manifestazioak aurrera ez egiteko agindua zuena, manifestariei tiro egiten hasi zen. Tiro hauen ondorioz, 7 pertsona hil ziren: José Carnés (32 urte), Manuel Pérez (34), José Novo (25), Antonio Barro (31), Julián Zurro (19), Jesús Camprosola (23) eta Manuel López, eta zauritu ugari ere izan ziren.*

*Al llegar al Alto de Miracruz se encontraron con un destacamento del Ejército, a quienes hicieron saber que se dirigían pacíficamente a pedir al gobernador la libertad de los compañeros detenidos. Estos les dejaron pasar y les advirtieron que más adelante se encontraba la Guardia Civil. Una vez llegados a la altura del reloj de Ategorrieta, con órdenes de que no se permitiese el avance la manifestación, la Guardia Civil comenzó a disparar contra los manifestantes. Como consecuencia de dichos disparos murieron 7 personas: José Carnés (32 años de edad), Manuel Pérez (34), José Novo (25), Antonio Barro (31), Julián Zurro (19), Jesús Camprosola (23) y Manuel López, así como numerosos heridos.*

*Hurrengo egunean, autopsia egin zitzaien gorpuei, eta Donostiako Polloe hilerrian lurperatu zituzten*

*Al día siguiente se realizó una autopsia a los cadáveres y éstos fueron enterrados en el cementerio de Polloe de San Sebastián.*

*Hala, bada, gertaera horien 90. Urteurrena dela eta, Donostiako Udalbatzak adierazpen hau egiten du:*

*Así, ante el 90 aniverssario de estos sucesos, el Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián:*

*1.- Bere oroitzapena eta esker ona adierazten die Ategorrietan eraildako 7 manifestari pasaitarrei, haien familiei eta 1931ko maiatzaren 27ko manifestazioan zauritutako guztiei.*

*1.- Expresa su recuerdo y reconocimiento a los 7 manifestantes pasaitarras asesinados en Ategorrieta, a sus familias, y a todos los heridos en la manifestación del 27 de mayo de 1931.*

*2.- Aditzera ematen du, botere publikoek, egia, justizia eta ordainaren printzipioei jarraiki, memoria historiko objektiboa defendatu eta balioan jarri behar dugula, eta eskubide eta askatasunen alde borrokatu ziren pertsona guztiei zor diegun aitorpena gizartearekin partekatu behar dugula, batez ere, kasu honetan bezala, pertsona horiek ondorio pertsonalak jasaten badituzte gizarte berdinagoa eta bidezkoagoa defendatzeagatik.*

*2.- Afirma que los poderes públicos, en virtud de los principios de verdad, justicia y reparación debemos defender y poner en valor una memoria histórica objetiva, compartiendo socialmente el reconocimiento para todas aquellas personas que lucharon en defensa de derechos y libertades, y que por hacerlo, sufrieron consecuencias personales, como en este caso, por defender una sociedad más igual y más justa.*

*3.- Aditzera ematen du 1931ko maiatzaren 27ko gertakarietan hil zirenen oroimena ohoratu eta gogoratzeko asmoa duela, eta Pasaiako Udalarekin adosten diren ekitaldi instituzionaletan parte hartuko duela, gertaera horiek ezagutu daitezen eta*

*3.- Manifiesta su intención de honrar y recordar la memoria de los fallecidos en los hechos acontecidos el 27 de mayo de 1931, participando en los actos institucionales que se acuerden con el Ayuntamiento de Pasaia, para que estos hechos se conozcan y no caigan en el*

*ahanztura kolektiboan eror ez daitezen".*
==============================

*olvido colectivo".*
===============================

Eta, horrela jasota geratzeko eta dagozkion ondorioak izan ditzan, Alkatetzak agindu eta ontzat emanik, egiaztagiri hau egin dut, Donostian, 2021eko ekainaren 1ean.

Y, para que así conste y surta los efectos procedentes, expido, firmo y sello esta certificación visada por la Alcaldía y de su orden en la ciudad de San Sebastián, a 1 de junio de 2021.

**BITARTEKO IDAZKARI NAGUSIA – EL SECRETARIO GENERAL EN FUNCIONES**

**Iñaki TXINTXURRETA PERDIGUERO**

**ALKATEAK O. E. -**
**V. º B. º DEL ALCALDE:**